

TABAKALERA



EGONALDI DEIALDIA: IKERKETA ARTISTIKOA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTER OF
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eu



1. AURKEZPENA

Tabakalerak, sorkuntzarako gunea den aldetik, nazioarteko egonaldi-programa bat du, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa honen helburu nagusia arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Programa honen eta Tabakalera dauden beste batzuen bitartez, espazio bat sortu nahi da askotariko eragileak eta beren proiektuak elkarrekin bizi daitezen, eta, hala, egoiliarrek eta eragile gonbidatuek elkarrekin lan egiteko aukera izan dezaten.

Tabakalerako kultur programak lan-ildo zehatz batzuk garatu ditu, mundu garaikideari buruzko hausnarketaren eta eztabaidaren inguruko askotariko interes-ildoak egituratzen dituztenak. Tabakalerak, hainbat programazio-ardatzen bitartez, gizarte garaikideari eragiten dioten gaiak hurbildu nahi dizkio publiko-ari.

Egonaldien nazioarteko deialdiak programazio-ardatz horiei jarraitzen die, eta gure programako arloak elkarrekin lotzeko asmoa duela erakutsi du; horrenbestez, funtsezko funtzioa du prozesu honetan. Hala, aukera ezin hobea eskaintzen du hala bertako nola nazioarteko eragile berriekin lankidetzan aritzeko, zeinak ezinbesteko pieza baitira Tabakalera proiektuari aberasten eta hazten laguntzeko.

2018-2019 biurtekoan, Tabakalerak, bere proposamen programatikoaren bidez, ariketaren ideia bihurtu du epizentro, "Ariketak: la segunda respiración" izenburuarekin. Nozio hori jarduketa bakoitzean egiten dituenarentzat onurak izatea helburu duten prozedura horiei guztiei dagokie. "Hizketaldi handia" (informazio gehiago Tabakalerako webgunean aurkituko duzu) jardunaldiak egitasmoaren sarrera gisa balio izan zuten; teoria kritikotik, praktika artistikoetatik, kirolek eta pedagogiatik zetozen ahotsak bildu zituzten, besteak beste. Lehen jardura horren helburua kulturak norbera eta kolektiboa eraldatzeko gai den tresna moduan duen gaitasunaren inguruan pentsatzea eta eztabaidatzea izan zen.

Testuinguru horretan, Tabakalerako programa kulturalak kultura garaikidearekin lotutako hausnarketa eta eztabaida-lerroak ehuntzea du asmo. Lan-lerro horiei jarraituz, baita gure egitasmoko arloen arteko harremanak sendotuz ere, egonaldiak egiteko nazioarteko deialdi hau jarri da martxan, erakundearen programan sartuko dena.



2. XEDEA

Nazioarteko deialdi honen xedea ikerketa artistikoko proiektuen garapena sustatzea da; hiru hileko egonaldi baten bidez eta 2019 osoan Tabakalera egingo den jarduera-programaren bidez egingo da hori. Egonaldia eta jardueren programa tartekatuta egin daitezke, egoiliarrek egoki baderitza proiektua garatzeko.

Tabakalerako programa publikoak egiten dituen arduradunarekin batera egin beharko da prozesua. Hala, proposatutako programa publikoa Tabakalerako jardueren programan integratuko da, dela sinposioen, hitzaldien, solasaldien edo interesa dutenek parte hartzeko irekiak diren tailerren bidez.

Nahiz eta ikerketa-egonaldia ez den zertan aritu lerro kontzeptualaz, baloratu egingo dira ematen dituen aukerekin batu, elkarrekin bizi eta osatu daitezkeen proposamenak.

Deialdian partehartu ahal izango dute Euskal Autonomi Erkidegoan (hemendik aurrera EAE), bizi diren artista edo eragile kulturalak, bai eta nazional eta nazioartekoak ere. Aurkeztutako proiektu guztietatik proposamen bat aukeratuko da.

3. HAUTAGAIK / PARTE-HARTZAILEAK

Deialdi hau ikertzaile, artista, komisario eta teorikoei zuzenduta dago, EAE-n bizi direnei, nazionaleri dela nazioartekoei, betiere haien lanak praktika artistiko garaikidearen inguruko alderdiak ikertzen baditu.

Programa honetan, proiektuek ezaugarri hauek dituzten kontuan hartuko da, bereziki:

1. Praktika artistiko garaikideek pentsamendu kritikoa sortzeko duten borondatearen inguruan.
2. Ezagutza eta artea produzitzeko modu eta hizkuntza berriak aztertzeko helburua duten.
3. Pentsamenduaren beste alderdi batzuekiko loturak egiten dituzten eta praktika artistikoetan ezohikoak diren testuinguruekin konektatzen duten.

Deialdi honen aurreko edizioetan sortutako proiektu-lerroekin koherentzia izatea baloratuko da. 2016an, "Europa, futuro anterior" egitasmoak film-artxibo



militantearen eta praktika bisual eta artistiko garaikideen arteko transferentziak esploratu zituen, Pablo La Parraren ardurapean. Bestalde, Maite Garbayoren “Mugak/Fronteras” egitasmoak, 2017an, mugaren nozioa birpentsatu nahi izan zuen praktika artistikoen, idazketa-praktiken eta mugako testuinguruetakoko kultura bisual eta popularraren bidez (eta haiekin batera), batez ere euskal testuinguruan, baina ez hor bakarrik. 2018an, Matthew C. Wilsonen “Spectral Exchange” aurkeztu du, gizakiek ikus dezaketenen espektro elektromagnetikotik kanpoko botere-, ekonomia-, biologia- eta hautemate-operazioen inguruko ikerketa.

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo soilik arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko, EAE-ko biztanleak, nazional edo atzerritarrek, dela eremu horretan jarduten direlako, dela sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotelako.

Halaber, hainbat pertsona fisiko edo juridikok deialdira, batera, aurkeztu ahal izango dute, haien artean erlazio formalizaziorik eskatu gabe. Kasu honetan 5. klausulako azken paragrafoan jarritakoa eman ahal izango da.

4. HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Proiektuak baloratzeko batzorde misto bat osatuko du Tabakalerak, sektoreko profesionalak eta berezko pertsonekin. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Berrikuntza eta originaltasuna.
- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak/ek bere/n aldetik nahiz taldeko gainerako kideekin batera orain arte garatutako ibilbidearekin.
- Bideragarritasuna eta Tabakalerak dituen bitarteko eta lan-espazioetara egokitzapena.
- Tabakalerako egoiliar programarekin eta lekuko testuinguruko jarduera artistikoarekin joan-etorriko bideak sortzeko gaitasuna.
- Tabakalerak sustatutako interes-ildoetara egokitzea.

Batzordeak deialdia hutsik jo ahal izango du, modalitate batean edo guztietan, aurkezturiko proiektuetako batek ere meritu nahikorik ez duela biltzen balioztatzen badu. Era berean, egonaldi honetarako zuzendutako baliabideak



beste egonaldi mota batetarako edo eta Tabakaleran garatzen den beste ekitaldi batetarako esleitu ahal izango ditu.

5. ZUZKIDURA

Egonaldia Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo da. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu:

- I. Bidaia eta ostatua:
 - I.1. EAE-tik kanpo bizi diren artista/eragileentzat:
 - Joan-etorriko bidai bat bere ohizko bizilekutik edo lekutik uanean dagoen tokitik.
 - Gela bikoitza (banakako erabilera), bainugela eta lanerako txoko batekin wifiarekin; sukaldea eta egongela partekatuak.
 - I.2. EAE-n bizi diren artista/eragileentzat:
 - Bertako artista edo eragileak ere izan ahalko du ostatua Donostia edo ingurutik kanpo bizi bada, aurreko ezaugarri berdinekin, eta gehienez 500€ hilabeteko, garraiorako.
2. 1.000€ egonaldiko hilabete bakoitzeko, dieta eta mantenerako.
3. Aseguru medikua, artista edo eragilea Europakoa ez den kasuan.
4. Lanerako espazio bat Tabakaleraren ekoizpen-gunean, oinarritzko behar guztiekin: argia, korronte hartuneak, proiektu bakoitzerako oinarritzko altzariak.
5. Sukalderako eta gune komunetarako sarbidea.
6. Tabakaleraren sorkuntza-liburutegi espezializatuko funtsetarako sarbidea.
7. Irudi eta soinu edizioko estudioetara eta plato/praktika eszenikoetarako espaziora sarbidea.
8. Baliabide teknikoak eta Tabakalerako lan-taldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.
9. Laguntza kontzeptuala proiektua garatzeko, eta laguntza inguruko eragile eta proiektuak ezagutzeko, egoiliarak hala eskatuz gero.
10. Ikerketa burutzeko 4.000€-ko diru-hornidura (zergak kanpo).
11. Jarduerak ekoizteko diru-esleipena, 25.000€ gehienez, ekoizpen-prozesuari dagozkion gastuak estaltzeko asmoz, nahitaez aipaturiko ekoizpenera zuzenduko direnak. Ekipamendu teknologikoen erosketak ez dira onartuak izango. Laguntza ekonomikoa, Tabakalerako ordezkari baten bitartez kudeatuko da. Aurrekontua adostu ezean, Tabakalerak aldeztu aurretik eginiko gasturik ez du bere gain hartuko



Aukeratutako proiektua kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisiko edo juridikok, elkarren arteko harremanak formalizatzeko 3. klausulako bigarren lerrokadan adierazitako moduak bete beharrik izan gabe), adierazitako prestazioak kolektiboak berak izendatutako pertsona fisikoari emango zaizkio, eta Tabakalerak diskrezioz erabakita. Aldez aurretik finkatutako aurrekontuan oinarrituta, hala dietak nola ostatua eta egonaldiaren denbora egokituko dira. Oinarrietan ezartzen den zenbatekoa ez da inola ere proposamena bidaltzen duten pertsona kopuruarekin biderkatuko.

6. EGONALDIAREN IRAUPENA ETA GARAPENA

Egonaldiak guztira ezin izango du hamabi aste baino gehiagoko iraupena izan, eta 2019 urtean zehar gauzatu behar izango da, gehienez hiru egonalditan banatuta.

Batzordearekin batera adostuko da egonaldiaren iraupen zehatza, Tabakalerak bere programazioan barruan dituen aukera eta konpromisoen arabera.

7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak egonaldia eta emandako laguntzak bertan behera uztea ekar lezake.
- Egonaldia bera eta haren inguruan sortutako jarduerak Tabakalerak egonaldi-programaren eta lan-espazioak lagatzeko programaren inguruan garatzen duen programazioan sartu ahal izango dira.
- Egonaldian zehar egoiliarrek Tabakalerak antolaturiko hainbat ekintzetan parte hartu beharko du, egonaldietako proiektuen ikusgarritasuna helburu dutenak.
- Tabakaleran izan eta gero, beren egonaldiari buruzko memoria bana aurkeztu beharko dute egoiliarrek.
- Egonaldia obra edo argitalpenen bat ekoizteko erabiliz gero, Tabakaleraren izena jarri beharko da kredituetan.
- Tabakalerako espazioaren erabileraren arauak jarraitu.



8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko epea 2018ko apirilaren 17tik maiatzaren 27eko 23:59ak [UTC+2] arte egongo da zabalik. Deialdien emaitza, 2018ko uztailaren 27an jakin araziko da. Hautagaiak aste beteko epea izango du egonaldiaren onarpena egiteko.

Izen-ematea Tabakalerako webgunearen bitartez egitea beharrezkoa da; horretarako, izen emate orria bete eta jarraian zehazten den hurrenkeran hurrengoko dokumentazioa atxikitu beharko da:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiak zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakalerako egoiliar diren bitartean (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
4. Proiektu garapenerako gorabeherako aurrekontua, bai eta premia guztien aurreikuspena ere.
5. Egoiliar den aldirako aurreikusitako lan-egutegia.
6. Egonaldirako denboraldi egokiena, lehen eta bigarren aukerak.
7. CVA eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

Dokumentazio guztia PDF formatuko (gehienez 10 mega, 10 orrialde) dokumentu baten bitartez helaraziko da; dokumentuaren izena modu honetara adierazi beharko da: Izena_abizena_modalitatea; adibidez: martin_bilbao_ikerketa.

Bestetik, helarazten den dokumentazioa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egongo da idatzita. Euskaraz edo gaztelaniaz baldin bada, nahitaez laburpen bat atxikituko da ingelesez. Hala izango ez balitz epaimahaiak proiektua ezetzatzeko eskubidea izango du.

Hautatua izanez gero, hautagaiak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte 10 eguneko epean, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontatzen hasita:

- NANaren, IFKren edo pasaportearen kopia.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 6o. artikuluan deskribatutako egoeraren batean sartuta ez egotearen adierazpena. Dokumentu hau Tabakalerako web-orritik deskargatu



daiteke, eta modalitate bakoitzari dagokion deialdian aurkituko da. Kolektiboen kasuan, adierazpen horrek hautagai guztiei buruzkoa izan beharko du.

9. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatu behar dute; ildo berean, Tabakalerak modu baketsuan erabili ahal izango dituela bermatuko dute, eta berme hori beteko ez balute, Tabakalerak zuzenean edo zeharka jasan ditzakeen kalte edota galeren erantzukizunetik salbuesten dute esanbidez Tabakalera.

Hautatutako pertsonak Tabakalerari lagako dizkio proiektu osoari edo proiektuko elementuen zati bati nahiz proiektuaren garapenari dagozkion ustiapen- eta irudi-eskubideak, legez baimendutako gehieneko aldirako, mundu osoan, Tabakaleraren jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo liburuxkak paperean edo digitalean argitaratzeko edo jardueraren sustapenerako, baina merkataritza-jarduerak esanbidez alde batera utzita.

Aukeratutakoak Tabakalerari bere izena deialdi honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan erabiltzeko baimena emango dio, esanbidez.

10. DATUAK BABESTEIA

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Tabakaleraren fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau, deialdiaren administrazio-kudeaketako jardunak, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko, eta parte-hartzaileek onartu egin behar dute beren datuak fitxategi horretan sartzea. Horri dagokionez, helbidea honako hau izango da: Tabakalera, Andere zigarrogileak, 1, Donostia. Parte-hartzaileak bere laguntzailearen baten datu pertsonalak ematen baditu, datuak Tabakalerari xede bererako jakinarazteko haren baimena izan beharko du.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak posta elektronikoa bidez baliatu behar dira; mezu elektronikoa sortzaileak@tabakalera.eu bidali, gaia honako hau duela: “sartzeko baimenak” mezuarekin batera datuen titularrak sinatutako gutun bat ere aurkeztu beharko



da, eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazteaz gain, NANaren edo antzeko beste dokumentu baten kopia ere bidali behar da.

11. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek Tabakalerako guneetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak, eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenerako erabiltzearen; era berean, erabilera hori baimenduko dute.

Hori guztia ohorerako eskubidearen aurkako erabilera edo aplikazio guztiak alde batera utzita, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako moduan. Eremu horretakoa ez den beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratzen da.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +: pgaraikideak@tabakalera.eu

www.tabakalera.eu